

# ABEZIA

– ARABA / ÁLAVA –

Abezia Gasteiztik ipar-mendebaldera, 30 bat kilometrorra, dago. Gasteiztik abiatuz gero, hona hemen bertara iristeko ibilbidea: Altubeko autobia hartu eta, N-622 errepide zaharretik zehar joango gara, 22. irteera arte. Handik, Izarra-Urduñarantz hartu, A-2521 errepidetik zehar. Hortik, behin Beluntzara iritsita, A-3612 errepide lokala hartu behar da, Izarraraino. Izarran gaudela, ezkerretara egin eta trenbidearen paralelo joanda, 800 bat metro egingo ditugu aurrera A-3314 errepidetik. Hantxe agertuko zaigu Abeziarako seinalea, eta Arabako 4420 bidean zehar 1,5 kilometro egin ostean, herrira helduko gara.

Gibixo mendilerroan, Abezia garrantzi handikoa izan zen kontzejuen artean, inguruko zelai eta basoak hobeto ustiatu eta zaintzeko nagusitu baitzen. Kuartango eta Arrastariako bideak ere Abeziatik pasatzen ziren, baita iparretik eta ekialdetik Aiara eta Zuiara haranetara zihoazenak ere. Arabako historiako agiritan oso goizetik ageri da herri hori. Hain zuzen, 937. urtean, Salcedoko San Esteban monasterioari eta bertako Nuño abadeari egindako emaitza batean, *Abeizako* Donemiliaga eta Santiago eliza aipatzen da; Ramiro II.a Leongoaren eta Fernán González Gaztelako kondearen garaian egin zen emaitza. Gasteizko gotzaindegian Monumentuen Katalogoan daude jasota datuok.

XVI. mendetik honako agiritan jasota azaltzen denez, gorabehera demografiko handiak egon dira Abezian historian zehar. Hori dela eta, Abeziako kapareen jaiotetxe asko hondatuta daude gaur egun. Ibaiak banatutako bi auzotan dira bizilagunak. "Beheko auzoan" parrokia-eliza dago erdigunean, eta "Goiko auzoan" San Bartolomeren base-liza. Gaur egun Urkabustaiz udalerraren parte da Abezia, Zuiako kuadrillaren barruan.

La localidad de Abezia se halla situada a unos 30 km al noroeste de la capital alavesa. Para acceder a ella, y tomando como punto de partida Vitoria-Gasteiz, nos dirigiremos por la autovía de Altube, antigua carretera nacional N-622, hasta la salida 22, dirección Izarra-Orduña, por la carretera local A-2521. Al llegar a Beluntza hay que tomar la carretera local A-3612, que nos conduce directamente hasta Izarra. A mano izquierda, y paralelos a las vías del tren, continuaremos unos 800 m, por la carretera local A-3314, donde encontraremos una indicación que nos conduce al pueblo de Abezia, tras recorrer 1,5 km por la carretera local A-4420.

Situada en los montes de Guibijo, Abezia fue muy importante en la comunidad de concejos, instituida para el mejor aprovechamiento y conservación de los pastos y bosques de la zona. Por ella pasaban los caminos que comunicaban Kuartango y Arrastaria, así como los que, por el Norte y Levante, lo hacían hacia los valles de Ayala y Zuia. Fue una localidad que entró pronto en la historia documental alavesa; ya en el año 937, en una donación que se realiza al monasterio de San Esteban de Salcedo y a su abad Nuño, se cita la iglesia de San Millán y Santiago de *Abeiza*; entrega que se hacía en tiempos de Ramiro II de León y del conde de Castilla Fernán González. Son datos que se recogen en el Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria.

Los altibajos demográficos se registran documentalmente a partir del siglo XVI, y han sido el motivo de que muchas casas solariegas de los linajes nobles de Abezia se hayan arruinado. Su población se reparte en dos barrios divididos por el río: el "Barrio de Abajo" con la iglesia parroquial como centro, y el "Barrio de Arriba" en el que se encuentra la ermita de San Bartolomé. En la actualidad Abezia pertenece al municipio de Urkabustaiz y forma parte de la cuadrilla de Zuia.

## San Martin eliza / Iglesia de San Martín

**A**BEZIAKO ELIZAK San Martin gurtzen du, eta inguruko baserriek osatzen dute parrokia. Harriz eginda dago, eta harlanduz bazterretan. Erdi Aroko hasierako egitura aldatuz joan zen, XVII. mendean egindako aldaketa eta zabaltzeen ondorioz, baita XVIII. mendeko maisuek egindako lanen ondorioz ere.

Hegoaldeko horman, mendebaldeko aldean, kanpandorrea altxatu zuten kanpai-horma zaharra zegoen lekuan. Hegoko horma horrexetan bertan, tenplurako sarbidea dago. Erdi-puntuko arkudun ataria da, apaindurarik gabea, ziurrenik elizpearekin berarekin eraikia. Kanpoaldera zabaltzen da erdi-puntuko beste arku bikoitz eta sendo baten bitartez, eta baoen artean pilastra bat du. Haren gainean dago garai bateko apaiz-etxea, gaur egun hutsik dagoena. Horman aurrera eginez, eraikinaren burualderantz, Arrosarioko Amaren omenez egindako kapera erantsi zioten, neurritz txikiagoa, sakristia bestekoa. Berorren gainean, tenpluaren sabaiepean, erlaitz zati bat gorde da: alboetako batean, bola erdi eta angeluzuzen batez apainduta dago, billete eran. Erlaitz hori Erdi Aroko lau harbururen gainera dator. Lauak dira, profil konbexukoak, eta, ikusten ez bada

**L**A IGLESIA DE ABEZIA se encuentra bajo la advocación de San Martín, y está rodeada de los caseríos que conforman la feligresía. Es un edificio realizado en mampostería con sillares en las esquinas. La estructura medieval se encuentra modificada por las intervenciones y ampliaciones del siglo XVII, así como por los maestros del siglo XVIII.

En la parte más occidental del muro sur está situada la torre campanario que sustituyó a la anterior espadaña. En este mismo muro meridional se halla el acceso al templo. Se trata de una portada formada por un arco de medio punto sin decorar, posiblemente realizada a la vez que el pórtico que la cubija, y que se abre al exterior mediante un doble arco de medio punto, de buena construcción, con una pilastra en el centro de los vanos. Sobre él se halla la casa cural, hoy deshabitada. Continuando con el muro hacia la cabecera, le sigue el volumen añadido que corresponde a la capilla de la Virgen del Rosario y, de menor tamaño, el correspondiente a la sacristía. Sobre el tejado de ésta, y bajo la cubierta del templo, se conserva un trozo de cornisa decorada con una media bola y un rectángulo, a modo de billete, en uno de los extremos. La



*Elizaren ikuspegi orokorra*

*Vista general de la iglesia*

ere, Arrosarioko Amaren kaperan barrena ere badoa. Han ere laua da, eta profil konbexuko beste sei harburu ditu.

Burualde edo aurrealdeak Erdi Aroko bi leiho-lerro ditu. Beherengo atalekoa estua eta luzanga da, zutabe batek itsututako baoa dauka, txaranbeldu antzekoa. Ematen du hasiera bateko itxura aldatuz joan dela, atalak eraiki ahala. Untzako San Fausto elizaren aurrealdean dagoenaren antzekoa izango zen, seguruenik. Goiko leihatea, berriz, txikiagoa da. Bao itsu estu bat du, bi arkiboltak osatuta marko batekin. Lehenengo arkiboltak baketoi laua du. Bigarrenak, berriz, dekoratu bakoa bada ere, baketoi fin bat darama ertzean. Arkibolton inguruan dator deskarga-arku bat, bola erdiekin eta laukizuzen batzuekin billete moduan apainduta. Dekorazio horixe bera topatuko dugu deskarga-arkuaren azpian dagoen inposta lerroan ere, baita kanpoko arkiboltan ere. Azken horren baketoi mehea, gainera, horman aurrera doa baoaren alde bietan. Aldiz, barruko arkiboltari eusteko bi fuste ageri dira. Lauak dira biak, eta oso hondatuta dauden bi kapitel txiki dituzte. Hain daudenez kaltetuta, ezin da igarri landare formako apaingarri xume eta lauak izango ote zituzten garai batean. Eskuinekoan perlatxo-sail bat azaltzen omen da. Kapitelen gainean inposta lerro lau bat dator. Leihateko elementuak mugitu

cornisa se apoya en cuatro canecillos medievales, lisos, de perfil convexo y, aunque no se puede ver, continúa sobre la entrecubierta de la capilla de la Virgen del Rosario, donde hemos podido comprobar que es lisa y que cobija otros seis canecillos lisos, de perfil convexo.

La cabecera recta conserva dos niveles de ventanas medievales. El de la parte inferior es estrecho y alargado, tiene el vano cegado por una columna y presenta un aspecto abocinado; todo hace pensar que las intervenciones han modificado su aspecto primitivo, que podría ser semejante al de la cabecera de la iglesia de San Fausto, en Unzá. El ventanal superior es de menor tamaño y se compone de un estrecho vano, cegado, cuyo marco lo forman dos arquivoltas; la primera presenta un baquetón liso, y la segunda, también carente de decoración, lleva un fino baquetón en la arista. Sobre ellas voltea un sobreaarco decorado con medias bolas y algún rectángulo en relieve, a modo de billete. Esta misma decoración la encontramos en la línea de imposta situada bajo el sobreaarco y en la arquivolta exterior, cuyo fino baquetón continúa a lo largo del muro a ambos lados del vano. En cambio, la arquivolta interior se apoya en dos columnas de fustes lisos rematados con pequeños capiteles muy estropeados, en los que no se



*Absideko leihoa*  
*Ventana del ábside*

direla, lekuz kanpo daudela. Baliteke batean eta bestean egindako ukituen eraginez mugitu izatea, eta beharbada horrexek eman dio irudi itxuragabetua, horrexek galarazi omen dio oreka eraikin osoari. Iparreko horman, bestetik, ez da Erdi Aroko aztarnarik ageri, ezta mendebaldeko hastialean ere. Hain zuzen, alde horretako estalkian ez da ur biko teilaturik azaltzen; burualdean ondo zehaztuta daude, ostera.

Barrualdean espazio bakarra nabari da, presbiterioaren alde bietan kapera bana erantsita. Burualde artezean, XIII. mendeko tenpluaren oinplanoa eta neurriak gorde dira, eta sasoi bereko garaipen-arkua ere bai; dena ere, kanoi-ganga zorrotz antzeko batez estalita dago. Garaipen-arkua bakuna eta zorrotza da, eta pilastra biren gainera dator. Kontrahormarena egiten dute bi pilastrek. Erdi Aroko oinplanoan bi atal bereizi dira, eta apur bat aldatu egin zen berrikuntza-lanen ondorioz. Garaipen-arkuaren zurkai-tzek, nabearen oinen aldean, apurtuta daukate erlaitza. Edonola ere, desberdinak dira alde batean edo bestean, zabalera ere ez dute berdina, eta horrek eraginda ditu nabeak bi atal bereizita. Kanoi-ganga zorrotz batek estaltzen du, eta, garaipen-arkutik aurrera, kanoi-ganga erdi-puntuko parpain-arkuduna bilakatzen da, pilastrek eutsia. Iparreko hormaren kanpoaldean horma-bular edo kontrahorma sendoak ageri dira, eta ez datoz bat barruko pilastrekin.

Testua eta argazkiak: RHA

aprecia la posible ornamentación de sencillos y planos motivos vegetales que los decoraban. El de la derecha parece conservar en su parte baja una sarta de perlitas. Sobre los capiteles hay una línea de imposta, lisa. Los elementos que conforman el ventanal se muestran movidos, como fuera de su sitio. Posiblemente los retoques los han desencajado produciendo una visión distorsionada y privando de equilibrio al conjunto. En el muro norte no se conservan restos medievales, al igual que en el hastial de poniente, donde la cubierta ha perdido las dos vertientes, que se muestran bien definidas en la cabecera.

En el interior encontramos un espacio único con las capillas añadidas a ambos lados del presbiterio. La cabecera plana conserva, hasta el arco triunfal, la planta y las medidas del templo del siglo XIII, y se cubre con bóveda de cañón ligeramente apuntada. El arco triunfal es sencillo, apuntado, y se apea sobre pilastras, a modo de contrafuertes. La nave medieval, de dos tramos, se encuentra un poco modificada tras la reforma. Los apeos del arco triunfal, en el lado de la nave que mira hacia los pies, presentan la cornisa rota y son más anchos y diferentes en ambos lados, lo que proporciona una anchura ligeramente superior al espacio que ocupan los dos tramos de la nave. Ésta se cubre con bóveda de cañón apuntada, que a partir del arco triunfal se va convirtiendo en bóveda de cañón, con un arco fajón de medio punto apoyado sobre pilastras. En el exterior del muro norte encontramos gruesos estribos o contrafuertes, que no coinciden con las pilastras interiores.

Texto y fotos: RHA

### *Bibliografía / Bibliografía*

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 359; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1995, p. 263, fig. 21-22.